

BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroari eskainiko diogun zerbitzu nagusia Touchtennis kirola egitea izango da, hau da, tenis zelai baten antzekoa den eremu batean, baina dimentsio txikiagoekin eta material erabat ezberdinekin.

Touchtennisa tenisean oinarritutako kirol modalitate bat da, pista trinkoago batean jokatzen dena, apar pilotekin eta 21 "ko erraketekin. Bi jokalariren artean jokatzen da (banaka) edo bi bikoteren artean (binaka). Rashid Ahmadedek 2002an Londresen sortutako kirola da eta urteak pasa ala, Europako hainbat herrialdeetan arrakasta nabaria izan duen kirola da; besteak beste: Frantzia, Espainia, Ingalaterra, Alemania...

Gure zerbitzuak era askotako beharrak asetzen ditu, baina garrantzitsuena gure bezeroek haien haserrea edo haien egunerokotik alde egiteko aukera ematen diegula da. Beste modu batean esanda, kirol hau eginez egunerokoan ditugun arazoak erraz ahazten ditugu kirolak berak dituen ezaugarriak direla eta, adibide bat jartzearen, aparrezko pilota izanik, indar handiarekin jo diezaiokezu eta era honetan haserrea edo arazoak murriztu edo ahaztu.

Borobilduz, jendeari eskaintzen diogun zerbitzu honek kirola egiteko aukera ematen dio edonori, osasuntsu mantentzeko, harreman berriak egiteko eta eguneroko arazoak ahazteko baliagarria delako.

